Gogoan hartu damutu baino lehen

Seguru egoteko, fidatu zure artekariarekin.

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu.

Hileroko buletina
Nº 26 / Apirila 2015

Famili enpresak, zuengatik!”

“Desberdin pentsatzen duen” eta, bere betebeharra dela sinistuta, “denetik” egiten duen pertsona baten historia da ondorengoa. Beretzat “egiten du bere bizitza”, dirua arriskatuz, aukerak bilatuz, arriskuak neurtuz eta arazoak konponduz…

Espainiako 3,1 milioi ETEetako edozeinen historia da. Gehienak famili enpresak dira, Espainiako BPGd-aren %70 sortzen dute eta 8,7 milioi soldatako langileri ematen diote lana. Pertsona fisiko ohikoena autonomoa da, eta horren ondoren, sozietate mugatua, horren jabea ere autonomoa izanda.

Ezinbestekoak eta etikoak

Famili enpresak ezinbestekoak dira Espainiako produkzioan. Epe luzerako ikuspegiari eusten diote, errendimendu ekonomikoaren eta familiako kideek gobernu organoetan duten protagonismoaren gainetik. **Euren jokabide etikoek balio soziala sortzen dute eta gainerako sozietateak baino kaudimendunago eta errentagarriago egiten dituzte.**

Hala ere, neurri handiagoko korporazioek dituzten zalantza berberak dituzte, desberdintasun batekin: konpainia handiek arrisku gerente bat dute euren langileen artean.

Zer da arrisku gerentea?

Euren ondare guztia balizko arriskuetatik babesteko kontratatzen dituzte enpresa nagusiek. Oinarrizko figura da, duen ezagutzagatik eta ezustekoen aurrean babesteko duen gaitasunagatik. Ezbehar handi baten ondoren, desagertu egiten dira 10 enpresatatik 7, euren aseguruak behar bezala kontratatu ez izanagatik.

Enpresen %97,6k 2 milioi eurotik beherako diru-sarrerak dituzte urtean. Txikiak dira, baina gure herrialdeko langile-kopuru handienari ematen diote lana. Eta horietako bakoitzak 58.619 milioi euroko Balio Erantsi Gordina sortze du (Europako batez bestekoa baino %2,21 handiagoa).

Izututa egon arren jardutea da enpresari izatea. **Kanpoko arrisku gerente baten zerbitzuekin, posible da “nork bere burua babestea”.** Hori da aseguru-artekariok egiten dugun lana. Zaila da prebenitzea eta zure negozioa babestea, aseguru-polizak konplexuak baitira. Guk, aseguru-artekariok, interpretatu, itzuli eta enpresa bakoitzaren beharretara egokitzen ditugu. Eta edozein gertakizun babesten laguntzen dizugu, aholkularitza profesionala eta independentea eskainita, enpresa baten eta bertako langileen oraina eta etorkizuna bermatzeko.

Espainiako enpresari txikiek azkar ikasi dute handien lezioa; ezagutzen dute euren negozioa eta euren merkatua, eta hazten jarraitzen dute, aholkularitza ona dutelako.

Goian beude Germanwings-en istripuko bidaiariak

Batzuetan, istripu tragiko hori bezalako zoritxarreko ezustekoak ematen dizkigu bizitzak. Aseguru-artekariok gure doluminak eman nahi dizkiegu hildakoen senideei.

Germanwingsen Alpeetako hegazkin istripua eragin duten gorabeherek ez dute eraginik izango biktimek jaso beharreko kalte-ordainetan. Kasu horietan, hipotesi guztiak estaltzen dituzte aseguruek: istripua, terrorismoa edo nahita egindako ekintza.

Montrealgo Hitzarmenaren arabera (1999koa, Europar Batasuneko kide guztiek onartua): “Garraiolaria da bidaiari bati eragindako heriotza edo gorputzeko kaltearen erantzule, heriotza edo lesioa eragin dion istripua aireontzian gertatu izanaren arrazoi bakarragatik...”

Kalte-ordainen zenbatekoa nabarmen handitu daiteke, gainera, airelinearen aldetik zabarkeria egon zela frogatzen bada.

Hala eta guztiz ere, hegazkina da garraiobide seguruena. Fidagarritasun hori kostu txikiko konpainietara ere heda daiteke, zalantzarik gabe. Hegazkinek 2,4 milioi hegaldiko edukitzen dute istripu larri bat.

Aseguruen sektoreari esker, horrelako hondamendietan kalteak minimizatu egiten dira, oso larriak eta latzak izanda ere. Ezin ditugu hildakoak piztu, baina kalte-ordainekin, kolpe latz horri aurre egiten laguntzen zaie senideei.

Kasu horietan, gainera, enpresa asko ixtea saihesten da, horrek kaleratze ugari ekarriko bailituzke; izan ere, aseguru-etxeek ordaintzen dituzte kalte-ordainak, bai eta horrelako ezbeharren ondoriozko kalte propioak ere. **Beti bezala, oso funtzio garrantzitsua du aseguruen sektoreak gure egunerokoan. Horiekin kontatu behar ez izatea espero dugu, baina zoritxarrak gertatzen dira, eta horrelakoetan, ez dago aseguru on bat eta aholkularitza onena baino gauza hoberik.**

Gogoan hartu damutu baino lehen

Hileroko buletina / Nº 26 / Apirila 2015

Ura, leporaino

Igandea da, goizeko bederatziak, eta autoan noa. Irratian, nekazari nafar bat ari da hizketan. Ibaia 10 hektareako bere zereal-soroan sartu da. Madariak ere hazten ditu, sor-markakoak, baina metro eta erdi ur dute. Hurrengo astean garbi-garbi egongo bada ere, ez dago denbora nahikoa bere uzta salbatuko duten tratamenduak aplikatzeko.

Ondoren, irratiko esatariari deitu dion abeltzain bati entzun diot. Bere abeletxean hazten zituen 2.000 txerriak hil dira. Gorpuzkinak kendu behar ditu, infekzioak saihesteko. Desesperatuta daude biak, eta zalantza ugari dituzte etorkizunari begira. Ez dakite klimatologiak noiz emango dien atseden.

Zuhurrak izan dira, ordea, eta aseguratuta daude.

Kalteak

Aurten, lehen hiruhilekoan, **, 8.000 kalte-ordain eskaera baino gehiago kudeatu ditu Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak, 60 milioi euroko kostuarekin, gutxi gorabehera.** Kantabria, Burgos, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Zaragoza dira eremu kaltetu batzuk. Ebro ibaiak eta horren ibaiadarrek eta Espainia iparraldeko beste ibai batzuek gainezka egin izanaren ondoriozkoak dira kalteak.

Castellon eta Valentziako probintziek ere uholde handiak izan dituzte martxo amaieran, eta 568 kalte-ordain eskaera egin dira orain arte, 4,3 milioi eurokoak, gutxi gorabehera. Urak etxeak, bulegoak, saltokiak, biltegiak, industriak eta ibilgailuak hartu ditu.

Nork ordaintzen du hori?

Uholdeek, lurrikarek, itsasikarek eta bestelako fenomeno naturalek eragindako kalteak ordaintzeko erakunde publiko bat sortu zen: Aseguruen Konpentsazio Partzuergoa. **Partzuergoak zure ondasunak babesten ditu horrelako hondamendietan, zure asegurua indarrean baduzu.**

Fijatu ongi: zure aseguruan Partzuergorako tasa txiki bat dago. “Aparteko” diru horrekin estaltzen dira horrelako ezbeharren ondoriozko kalte-ordainak. Denei aldi berean kasu egitea da zailtasun nagusia, gertakari guztiak batera gertatzen baitira. Egoera horietan ere, ezbehar-orria betetzeko eta, Partzuergoarekin batera, dagozkion balorazio-txostenak lehenbailehen izapidetzeko gaude.

Anekdota

“Fast and Furious 7” pelikulako aseguruak 50 milioi kostatzen dira

Rápidos y Furiosos 7 pelikularen aurrekontuaren bost dolarretik bat pelikularen grabazioa aseguratzeko izan da. Hollywoodek zinemaren marka guztiak gainditu ditu **beharrezko aseguru guztiak kontratatzeko 50 milioi dolar inbertituta.**

Zergatik horrenbeste diru polizetan, 250 milioiko aurrekontuko pelikula batean?

Hamahiru aste behar izan dituztelako grabatzeko. Azken sekuentzian 600 lagunek parte hartu dutelako. Eta aurreikuspenak 200-250 milioi handitu zirelako protagonista, Paul Walker, 2013. urtean zirkulazio istripu batean hil eta gero. Horren falta haren gorpuzkera bereko dobleek ordezkatu zuten, eta efektu bereziak erabili ziren (mugimenduan dagoen photoshop baten antzekoak), eta horrek 50 milioi garestitu zuen kostua.

Hala ere, zinemaren gunean ez da ezer ezinezko. Zortzi ehun milioi dolar bildu ditu pelikulak dagoeneko mundu osoan, marka berria historia horrentzat.

Ikerketa

Scooter istripuak: “autoak dira errudun”

Hirietan, kontuz motorrekin. Scooterrek izaten dituzte istripu gehien. 35-45 urteko gizonek gidatzen dituzte, lana dela-eta herrian barrena mugitzeko; beraz, ez dira kirol-motorrak gidatzen dituzten gazteak. **Maiatza da istripu gehieneko hilabetea. Istripu gehienak astegunetan izaten dira, batez ere ostiraletan. Eta horietako gehienak, hirietan.**

Ez da harritzekoa Scooterrak izatea istripu gehien dituzten motorrak, saltzen diren motozikleten %68 halakoak baitira.

Ezbeharretan, motor-gidarien kexak ikusten dira: motor baten eta turismo baten arteko 3 talkatatik 2 autoaren gidariaren erruz izaten dira. Horrek zalantzan jartzen du, beraz, motor-gidariak gidatzerakoan arduragabeak diren ustea.

Depósito Legal M-41589-2012
Edita: E2000 Financial Investments S.A.

ASEGURU ARTEKARIOK
Onestasuna Konpromisoa